

Kohabitazioa 1956tik goiti. Etxeko lanen banaketa.

E.: ziek etxe untaat ezkondu ziztelaik, zenbat jende bizi ziren hemen, etxe berian?

F.: ta, aita-amak eta ni. Ene esposatzeko? Aita-amak eta ni, eta geo mutila.

E.: eta luzaz kohabitatu duzie, elgarrekin bizi izan zizte?

F.: ta ni sortu ta il artio, ama, sortu ta il artio enekin, ta senarra re ba, ta aita geo, aita fiteo il zen, aita... Gu esposatu berroita amaseian ta iutan oita lauian il zen, (...) il zen ua.

E.: ezkondu ziztelaik bereala artu duzii etxaldearen segida ala...

F.: ez, gero, gero, gero, gero, aitag amari pastu zakon, ta amak guri, ez beala ez. Leenoko xaarrek berekin atxikitzen zuzten, e! Ez da oai bezala, e! Oai maiten dute ba fitio gaztek, guk man ginin Andréri ogoi urtetako man ginakon xantza, arek zitin xantza guziak, ta ordian, hala.

E.: ta ziek, bi mazteak, etxe untakoak zinezten?

F.: ba, biak emen sortiak.

E.: nola, zu ezkondu zizelaik, aurrak ukan tuzu, nola banatzen zinuzten emazten arteko lanak? Nola akomeatzen zinezten lanetan?

F.: bo, amak iten zien ardurenian kozina ta nik gaintiko guziak. Amak iten zin kozina, geo eta osaarriaz flakoa zen puxka at, osaarria, ziatikak eta noiznai baizitin, biziki osaarri flakoa zin, osagarria ez baitezpada, ziatikak atakatzen zin azkar, ta ordian ez zin, kargaik ta ez zin deus iiltzen aal, ordian nik iten nintin gaintiko guziak beti.

E.: erran nai baita menaia...

F.: ez da bea egon ama ni bezala sekula, sekula ez da egon.

E.: erran nai baita zuk menaia iten ziniela, haurrak...

F.: dena, ba xuitziak e, azken aurrak bost urte in artio denak eskuz inak tut, denak zazpi lagunena. Alainan, elektrikaik ez ginin force-aik, ta in nin iru hilaitez, segidan in nintin troi (...), ta azken... Hiugarrena in nilaik, asteleina zen, ta senarra joan zen Housseten xeka, ta Houssetek erran... Jin zen ta eman zaan, beala pikura at in zaan, ta gero ostikoka zoladuran ez ninez machine à laver-a zartzen al, bena erran nakon: “ez dut iten al, ez da argiik”, bon, ta gero joan nintzan ene kusiain kustera, Arño, Arño Plein, ta arek eni: “ze nai duzu petite cousine?” ta “ba, ola ta ola da, ta bear nuke machine à laver-a ta argik ez”, ta beti re machine à laver-a karriaazi zin eta beotzekoa gazian, egosteko, ta gero elektrikara pasten nien, elektrika azkartu artio, ta gero zarri zuten force-a, ono re, oono re alta azkarkartia da azkar e, na oono re André ai bada soudure-an ta ni lisatzen, zonbait aldiz jauzaazten da.

E.: latsaarria...

F.: latsaarrira joaiten nintzan, kartierrian, or berian, asteleinetan, bizpalau emazte rankontratzen ginen, usaia ala zen, geo etxen e baginin ura, etxen e iten nin aste erditan. Etxen baginin ziterna, eau courant-a zarri aitzin ziterna, ta ordian, ura zeno, in ginin.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala